zimpo

ERREPORTMEA ETXE mirA ilf N PREZIOAK GER nTA GARESTIAGO (91-IPTM EUSKALTEGIETAN
ARIGERA Lbj inA BARTARREN BEHOBIA.DONOSTIA LASTERKETAKO SAILKAPENA

# BARREN

ASTE KARIA

EKOGAIN ... ASTEKARIA ... azaroaren 17a / VII. urtea / 341. zkia



# Etxetik alde egiteko sasoia

" BAKOITZAK BERE GUSTURA EGITEN DU ETXEA" (Esaera zaharral

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
s' 943 74 31 16

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
Muguruza, 30
s` 943 74 32 38

**LODOSO**
Leihoak
Ermuaranbide, 16
943 74 34 90

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
w 943 74 36 34

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
943 74 05 47

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
943 74 03 96

## AMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
943 74 30 94

## ITURGINTZA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
w 943 74 17 61
689 04 92 06

**JUAN CARLOS**
Urasandi, 59-61
943 74 34 87

**ONGI**
Urasandi, 8
tv 943 74 10 82

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
Td` 943 74 02 79

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
943 75 50 62
607 75 50 62

**ZALDUA**
Urasandi, 26
943 74 05 30

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
'w 943 74 07 89
a 608 14 30 40

## P2D EKTUallUE

**JESUS M$^{2}$ GABILONDO**
Ubitarte, 4-5 esk.
943 74 45 99

## lkTURnE

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
z' 943 74 04 40
607 74 04 40

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
rk 943 74 15 52
606 43 11 19-20

## ELEKTRIZITATEA

**AIKAMR114**
Morkaiko, 1
72 943 74 12 80

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
943 74 12 38

**BETI ARGI**
Errosario, 6
943 74 16 44

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
943 74 13 76

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
tr 943 74 34 18

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
• 629 34 43 89

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
z' 943 74 29 87
679 19 77 47

**IPINTZA**
Trenbide, 25
630 95 97 58.7
Faxa: 943 74 45 97

## Bush edo Al Gore

George W. Bush edo Al Gore. Sinestezina dirudi. Arauak dioen bezalaxe azaroaren lehen astelehenaren ondorengo lehen asteartean eginiko hauteskundeak egin eta astebetera Estatu Batuetako presidente herria nor izango den jakin gabe egon gara, Bazirudien hasieran George W. Bushek irabazi behar zuela. Al Gore berak ere zoriontzeko dei egin zion. Handik ordu gutxira egoera aldatu egin zen demaseko iskanbila sortuz. Ez Bushek ezta Al Gorek ere ez zuten uste urtebeteko kanpaina gehiago luzatuko zenik, baina horrela izan da eta egunero komunikabideek bi hautagaien herri ematen jarraitzen dute. Bill Clinton normaltasun itxura emanez, Asian dagoen bitartean, Estatu Batuetan Al Gore emaztearekin hainbat ekitaldi publikotan ikusi dugu, zinean adibidez. Bush, herriz, here arrantxoan dago, ziurtasun itxura emanez, gobernukide izango dituenekin bilduta, presidente kargua berea balitz bezala. Baina hitartean, iskanbilak iskanbila eta iruzurra tartean. Begirada gehienak Floridan jarrita daude. estatu erabakigarria da, hi hautagaientzat ezinbestekoa da hertan irabaztea. Hori dela eta botuak eskuz kontatzera iritsi dira. non eta munduko herrialde boteretsuenean. Gezurra dirudi.

Leire Urkidi



# Kaleko hitzkuntza

Ya te digo, impresionante, que buena, no jodas, desearau, marronazo, la preparo... hau da gaur egungo gazteriaren hizjarioa. Hau da kaleko liizkuntza eta benetan gazteen arteko harremanetan bizitasuna jartzen duen jerga. Espresio hauek eskuratzerako orduan nabarmena da kanpoko eragina, telebistarena zer esanik ez eta nola ez, gazteenabilezia, buruargitasuna...

Esamolde hauek espainolez diharduten gazteek erahiliko balituzte, espainolen hizkuntza henetan bizink dagoenaren seinale litzateke.

Ez da hain normala, berriz, euskaraz dihardugun gazteok, konszienteki gabiltzanok gainera, honelako esamoldeak erabili beharra izatea. Esan naln duguna euskaraz adierazteko eta aldi berean originalak izateko baliabiderik ez dugu aurkitzen; hau da, kolokialtasuna galdu dugu.

Azken urteetan euskara poliki-poliki lehendik ezezaguna zuen esparruetan sartu da, irakaskuntza, kazetaritza, unibertsitatea eta abar. Lehen berea zuen lurraldean arzerapausoa eman du, ordea.

Elgoibarren euskarak jatorriz duen freskotasuna galtzeko arrazoietako batzuk, hitanoaren transtnisio eza, "euskara ikastoleroaren" sorkuntza eta gazteon artean euskararen presentzia mugatua dira.

Nork ez du inoiz Azkoiti-Azpeiti edo Ondarru-Lekeitioko gazteen arteko elkarrizketa fresko bizi eta jatorren inhidia sanoa eduki?

Bada oraindik nondik berreskuratu eta ikasi.

Unai Argarate

11F

ErreportAjea .................................... 6

MOtZak .................................... 10

gehigarria .................................... 13

kiROlAk .................................... 19

łtGencla ....................................

## LEKU-EDER PARKEA. DELA-ETA

13ehin baino gehiagotan, lehenengo harritu eta ondoren kriston haserrea sartu izan zait Leku-Eder parke edo berdegunean txakur kaka dela eta kexa hat irakurri izan dudanean. Badirudi kexa jarri duenak ez dituela haurrek (egunero) eta gazteek (batez ere asteburuetan) egiten dituzten triskantzak ikusten. Ecio, txakurrak al dira Leku-Eder eta Plaza Txikia kartoi, paper, pila, kaxa eta posihle diren zikinkeri guziak botata lagatzen dituztenak? Txakurrak al dira jardineko hortentsia eta heste landareak apurtzen dituztenak? Bai emakumea, txakur jabe asko dago oraindik beraien "erregalotxoak" jasotzen ez dituztenak, haina gutxienak dira. Baina bestaide, ama edo haur arduradun asko eta asko dago Leku-Ederrera joan eta heraien hete beharretaz ahazten direnak, eta mesede bat eskatuko nieke: noizean hehin, burua altsatu eta haurrak dituztela gogoratzea.

M.N.E
NAN 15.356.213



♦ Gizonezko hat etorri zaigu BARRENera pabeseko harri solteen arriskuaz ohartaraztera: "Apurtuta clauden balclosak oso arrisktasuak dira oinezkoentzat eta adineko jendearentzat hatik hat. estropuz egitea oso erraza baita".

ASTEKARIA
BaRRen

Natarroa enparaniza, 2
20870 ELGOEBAR
a 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea..com
Helbide informatikoa:
www.lhardun.comfbarren
AFIGRARATMLEIL
Elgelbarko lzarra

Ei ELGOIBARLVZALRA

LAGLUITZAILEA Elgabarko Udela ZUZENDARIA 51i AIzpuru KAZEIARIAK IratiAgrrreazaldegi, Asier Orbea PLIDLOITATZA Andoitz Agirregomezkorla MAPETATZAILEA Boa Ansola Anhkrimnamok. GIatz Arbola GESENRIA Pala Abrarez, M. Angeles Onueste. KSLABODATZAILEAK Amaia Lanz, Unai Argarate, Eguakine Aranberri. Lorea Perez de AJbeniz, Anor Zabalela, Laira Urkidi, Olga Unzilla. Montse Arregi, Juaniko Gorostiza, Amala Urzelar, ron Gurnitzaga, Ainboa Ancronegr, Kokoe K.E. eta Urruzuno AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburusk ISPRIMATEGGGertu Koop. E, TIFIADA 4.000 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038f92 ISSN 1139-1155

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jauriarazako Kukura Sailak efa Foru Aldundiak diraz lagundiaako aldizkaria.*

IVElgrrarterkrana
rb•A se,a1

hDANOBAT
10..,195

GOI
GILUPO DANGIAI

BAERENek ezdu bere gan hertzen ESKUTITZAK re

# Urruzunoren
## begi izkutua



Gaua katuen erresuma da. Behin ilundu eta gero, jendea erretiratu denean, kalera ateratzen dira eta kaleetaz jabetzen dira. Gaueko ordu horietan herritar gehienak beraien etxeetan egoten dira telehistari begira. Telebista cla etxe gehienetan jaun eta jabe. Kanpotik begiratuz gero, ia etxe guztietan telebista piztuta dagoela nabari dezakezu, leihotik aparatttaren argi disdira kanporatzen delako. Egungo gizartean telehistarena da adikziorik hedatuena; herritarrek derrigorrezko dosia hehar dute gauero ohera joan aurretik.

Katuek kaleetan inor ez dabilela aprohetxatzen dute nahi dutena egiteko. Inoiz pasealari bakartiren hat igarotzen da San Frantzisko kalean hehera, baina soilik bere itzala izaten du lagun.

Jon Eugi

URRUZUNO ITTERATL11 TALDEKOA

♦ Arregitorre kaleko bizilagun bat etorri zaigu erredakziora eta honako ke-xa hau adierazi digu: jendeak kalean txisa egiteko ohitura dauka eta zenbait boladatan agoantatu ere ezin da egin bertan. Arreta gehiago eska-tuko nieke".



• Herritar hatek Sigmako garajeen aurrealdearen egoera penagarria salatu nahi du: -Bidea asfaltatu edo zerhait egin heharko litzateke. Jende as-ko pasatzen da hemendik paseo hat emanez eta lotsagarria da horrela man-tentzea⁻.

## n1110,All

• Herritar batek Gorka Garate txalotu nahi du Enduro Txapelketa irahazi zuelako. Gorka bere kategorian Iehena izan zen eta Euskadiko sailkapen orokorrean, berriz, hintgarren.

# Eigoioartarra

## MUNDUAN ZEHAR

PI



**Juan Luis Mugerza** elgoihartarra
Peru eta Bolibia ezagutzeko asmoz joan zen udan Ameriketara. Guztira 45 egun pasa zituen bi herrialde hauetan. Guri Peruko bidaia azaldu digu. "Nahiko biaje abenturerua izan zan" aipatu digu, "ez gendun hotelikan ez ezer hartu, Peru eta Bolibia barruan ibiltzeko hegazkin bonoak bakarrik hartuta abantau ginan". Peru oso polita iruditu zaiola aipatu digu, "oihan eta mendiz beteta dao, eta zeozer azpimarratzekotan Matxupitxu hiri galdua aipatuko nuke, ikusgarrixa da". Peruko hegoaldean hasi zuen bidaia, Arequipa hirian. "Colca izeneko kainoia ikusi gendun eta baitxa Condorra ere, munduko txoririkan handixenetakua". Puno izeneko herrian ere izan ziren. Inguruetan Titikaka laku ezaguna dago. beniz, laku erdian dagoen idaren izena da. "Uztaileko azken astian jai antzeko bat ospatzen dabe Takilen. Txitxa edaten eta dantzan pasatzen dabe astia eta gu hori ikustera jun ginan". Handik Cuzcora joan ziren eta gero Matxupitxura. Ondoren, Lima hiriburua ezagutu zuten eta herrialdeko iparralderantz abiatu. Huaraz herrian, bertan bizi den elgoibartar hatekin egon ziren.

73■341"-.7
VIAJES BIPAIAK
**31L3F10 EXPTESS**
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparanfza, 3 - Tel: 943 74 39 12



# ETXEIN aLeon

EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKMEGOAN
salgai dauden etnebtzltzen prezioen bilakaera (Itlikka pta./m²ko)*

| Urtea | Erabiliak | librelerriak | Babes ofizialekeak |
|---|---|---|---|
| 94 | 221 | 211 | 107 |
| tdi | 225 | 249 | 117 |
| | 233 | 250 | 118 |
| 97 "1111 | 234 | 246 | 117 |
| 98 | 242 | 248 | 106 |
| 99 | 313 | 261 | 117 |
| 00 | 389 | 291 | 122 |

11 1 1HAEko Etxebititta, Garaje eta lokalen Gaineko Inkesta

*Etxebizjizek prezio ikaragarria dute. Beraz, gazteentzat oso zaila da gurasoen etxetik alde egifea. Aita eta amaren akiamenean gusfura daudelako dela dio askolc, baina prezioei begira jarriz gero, laster konturatuko gara ez dela horren erraza amaren gonapetik aldentzea. exebizitza baten jabe egitea gazte askoren buruhaustea bihurizen da. Eusko laurlaritzak hiru hilabetectn behin kaleratzen du etxebizjizen eskainizari buruzko txostena, eta bertako emaitzen arabera 1994tik aurtengo lehen hiruhilabefera artean ebrebizitzen prezioek %60,5eko igoera izan dute. Diru kopuru hauei aurre egin ezin eta alokairuaren irtenbidea aukeratzen dutenak ere badira, gutxiengoa izan arren. Elgoibarren pisua erosi zein alokatu egin daiteke eta bi bideak aukeratu dituzten gazte batzuekin izan gara berbetan, eta beraien hautaketaren zergatia azaltzeko eskatu diegu.*

## ETXEA EROSI

Gero eta gehiago dira etxebizitza baten jabe egin nahi duten gazteak. Lan aukerak gehituz doaz, interes tipoak jaitsiz eta, kreditoen amortizazio epea luzeagoa da. Bestalde, 20 eta 35 urte arteko jendeak independizatzeko gogo gehiago duela dirudi.

Silbia Palominok eta Koldo Galdonak herriko beste hainbat gaztek bezala etxea erosi dute Elgoibarren. Etxea erostea dirua aurrezteko modua zela-eta hartu zuten horrelako erabakia. "Koldo lanian dao eta dirua aurreratzeko modu ona etxia erostia zala pentsau genduan, inbersio moduan", esan digu Silbiak. Sarritan entzun dugu gazteek etxe bat erosteko zailtasunak izan ohi dituztela oso garesti daudelako, baina Koldo eta Silbiaren ustez ideia hori ez da hain zuzena. Silbiaren esanetan, "bixetako batek lan fijua euki ezkero bankuek-eta ematen ditxuzte erreztasunak, haina zeozer segurua euki bihar da". Koldoren ustez, ordea, nahiko gogorra da, "dirua ez dau inork erregalatzen. lrabazten hasitxakuan erropia erosi, afarixak gastau eitxen da. Behin holako gauza baten sartuz gero esfuertzua ein hihar da, baina hasieran pentsatzen genduana baino errezaua da". Elgoibanen hainbeste etxe egiteak onurarik ekani al dien galdetuta zera erantzun digute: "Eskaeria eskaintzia baino



*Silbia eta Koldo etxe berria cznzahzeko zni daude eta ihtsio handiarekin jarraitzen dituzle obrak.*

nal s ea

"Etxia erostera jun ginanian konstruktorakuak esan zigun jendiak planuak urten aurretik erosten ditxuala ez dao saltzeko problemarik"



*Maierrek ezagun Inuen bitartez alokatu zuen etxea baina aurretik e.s'kaintz,a ere hegiratu behar izan zuen.*

haundixatta da, heraz, beti daoz garesti. Etxia erostera jun ginanian konstruktorakuak esan zigun jendiak planuak urten aurretik erosten ditxuala etxiak, ez dao saltzeko problemarik". Jende gaztea animatuko lukete horrelako proiektu batean sartzera, "zeozer fijua euki ezkero arriesgau ein bihar da, eta gero ezin bada pagau orduan pentsauko da zer ein".

Aurrez beste aukeraren batean ere pentsatu zuten Koldok eta Silbiak. "Protekzio ofizialeko etxien posibilidadia ikusi genduan, baina ezer garbirik ez zauan eta bixotako hatek lan fijua zakanez, erostia pentsau genduan. Alkilerrana tontakerixa bat iruditxu jakun, berdin edo gehixao pagatzen da eta gainera etxia ez da norberana. Erosi ezkero etxia guria da eta ezin badogu ordaindu saldu ein leike".

## ETXEA ALOKATU

Etxe batean sartzen diren gehienek gaur egun erosketaren aukera egiten dute, eta gutxiengoa da alokairua hautatzen duena. Etxea alokatzen dutenak, Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, adinez bataz beste 27 urtekoak dira eta bi edo hiru gelako etxeak eskatu ohi dituzte.

Maier Gurrutxaga etabere seuarra Gasteizen bizi ziren ikasle pisu batean elkarrekin. Gero ezkondu eta biak hatera bakarrik bizitzera joateko erabakia hartu zutenean alokairua aukeratu zuten etxea hartzeko modu gisa. Maierrek esan digunez, "laneko egoeria ez zan oso tinkua eta ez zakigun nun bukatuko genduan bizitzen, orduan alkilerreko etxia hartzia erabaki genduan. Lanian seguridadia euki ezkero eta nun bizi bihar zeran seguru badakizu, igual animatzen zeraerostera".

"Propiedadian zentzua oso sartuta dauan gizarte baten bizi gera, eta beti jotzen da etxia erostera eta ezin danian alkilerran aukeria eitxen da"

Maierren esanetan, bere inguruan asko dira alokairua probatu eta ahal izan dutenean etxea erosi dutenak. "Propiedadian zentzua oso sartuta dauan gizarte baten bizi gera. Inglaterran eta Estatu Batuetan jende asko bizi da alkilerrian, baina hemen beti jotzen da etxia erostera eta ezin danian alkileirera".

Beraiek erraz alokatu zuten etxea ezagun baten bitartez, eta ziur ez dakien arren Maierren ustez badira Elgoibarren alokatzeko etxeak: "guk ez genduan asko beitxu, baina uste dot aukerak hadaozela, ez dakitx ze prezio egongo dian, baina esaten dabenez nahiko karuak dia. Alde horretatik suerte ona euki dogu, etxekoandria ondo portau da gurekin eta ez digu alkilerran preziorik igo, baina generalian gora eitxen dau". Alokairuan bizitzearen desabantailak "batetik, pagatzen dozun dirua ez dixe inora, eta bestetik, berrikuntzak ere ezin dia ein etxia ez dalako norberana". Maierren ustez badu abantailarik ere, "nahi dozunian etxez aldatu leike, ez dao leku berdinian luzaruan egon biharrik".

Gazteak izatea etxe bat alokatzeko orduan desabantaila dela esan digu Maierrek. "Ikasle pisuetan, batez ere, beti esaten dahe etxiak zaintzera ez gaudela ohitxuta, baina hori ikasi eitxen da". Beraz, Maierrek edozein gazteri aholkatuko lioke esperientzia hori probatzea. "Zure kontura bizitzeko gogua badakazu eta etxe bat erosi ezin badozu, aukera politxa dala uste dot".

**Espainiako Gobernuak irakaskunlia berdindu nahi du Estatu guztian.**

# AUTONOMIA GUITIETAN IRAKASKUNTZAK BERDINA IZAN BEHAR AL LUKE?



### CARMEN ORBEGOZO

**49 urte, pentsionista**

Ez, autonomia bakoitzean historia gaia piska bat ezberdina izan beharko litzateke. Ni eskolan ibili nintzenean ez genuen Euskal Herriko historia ikasi eta orain erakutsi egin beharko lukete.

### JOSE RAMON ORTUOSTE

**41 urte, gozogilea**

Ez, orokorrian danek berdina ikasi arren herri bakoitzak bere historia eta ezaugarriak ditu, beraz, partikularki hori irakatsi beharkolitzateke.





### SONIA REVERT

**27 urte, etxekoandrea**

Ez, nire ustez hemen Euskal Herriko historiari garrantzi gehiago eman beharko litzaioke, eta beste probintzietan hertakoari, baina heti ere gainontzekoen historia ahaztu gabe.

### CRISTOBAL BERISTAIN

**44 urte, fresadorea**

Ez, ezta pentsatu ere. autonomia bakoitza ezberdina da, esaterako historiaren kastian. Autonomia bakoitzeko Gobernuak hartu beharko luke irakaskuntza moldatzeko ardura.





### JOSE MARIA ZELAIA

**59** urte, mekanikoa

Nere uste ez. Euskal Herrian guri dagokigun hizkuntza eta historia erakutsi hiharko lirateke. Trakaskuntza guztia ez luke clanontzat berclina izan. hihar.

### MARIA JESUS IRIONDO

35 urte, etxekoandrea

Nik uste clot baietz, chmentzat igttala izan beharko luke. Gauza orokorrak danek berdin ikasi eta gero bakoitzak bere autonomiako historbda ikastia izango litzake kontua.




4#,—Cle 11044 vS. Cebtip.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

JOSE/9/41ai

(Txema)

-Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab_ jartzen dugu

San Bartolome, 28-1 ezk • Te!: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



# NORBERE f o izioan

*Zj/ALi 2U(31AUPPE_*

Arotza

**Zergatik lan honetan?**
Zeozer ein bihar nabalako eta entxufiagatik ere bai.

**Beti lan berean aritu al zara?**
lanian hasi nintzanian hemen hasi nintzan eta gaur arte.

**Zure laneko gauzarik onena?**
Neretzako ¯txapuzak¯ edo arotz lanak ein ditzakedala etxian.

**Eta txarrena?**
Asko nekatzen da bat, lan gogorra da tahloiekin-eta ihiltzia.

**Aldatzekotan, zein lanbide aukeratuko zenuke?**
Pilottla izatia edo rcxk talde baten jotzia gustauko jatan.

**Bizi lanerako edo lan egin bizitzeko?**
Lan egin bizitzeko.

**Lanetik irtendakoan...**
Neskiakin eta lagunekin egoteko aprobetxatzen dot, baina denhora libre gutxi izaten da.

**Zuen arloan lan eskaintzarik ba al dago?**
Beste leku danetan bezela. gutxi. Zazpi unian langile bakarra sartu da gurian. Jun gehixao ein dia etorri baino,

**Osasuna, lana ala maitasuna?**
Osasuna, maitasuna eta lana azkena, duclarik gabe.

**Lanean gertatutako anekdotarik?**
Tailarrian agertu clian animalixak: txakurrak, saguzaharrak, ahatiak... behin tailar atzeko zelaitxik lagarto berde-berde bat agertu zan, baina bestela gure lana nahiko monotonua da.

# Ne•ozioak
## ALDATU EGIN DIRELA!



**1926an** Merkatu Plazaren egitura egin zuten. Ikusmira handiko azoka egin ohi zen bertan, Bizkaitik ere jendea etortzen baitzen ostegunero. Euria egiten zuenean, norrnalean Foruen Plazan egiten ziren jaialdiak bertan egiten zintzten. Honela, musika banda, dantza saioak, antzerkiak, komedianteak, boxeoa eta C.D. Elgoibarko entrenamenduak ere egin izan dira bertan. Anekdota gisa, urte honetan "eskalatorreak" Elgoibarko parrokiko dorrea igo zuen.



1971n bota eta eraikuntza berria egin zuten. Egun merkatu bezala erabiltzen da eta ostegunero, ohitura zaharrari jarraituz, baserritarrek ere beraien salmenta lekutzat dute, Esan digutenez, berritu eta gero ere berbenak egiten ziren bertan.


# 1410 h141,011111% no0ij

Neylko OlinplaJak alnUlatUz herri Jes6erchneiak0 sazie 'lasoizeto dukera pareSalea!



**Azaroak 25**
**BTSASONDOn**
14-18 urteltnentzat
**51313 pta.**
**(Bazkaria+garraiaa)**

**IZENA EMATEKO:**
Azorouren 13tik 20ro.
Elgoibarko Izarre (Ubitorte 4 behea)
943 74 16 26

ANTOLATZAILEAK:
AISIALDI TAILDeA
ELGOIBARKOJZARRA
GIPUZKOAKO FORUALDUNOIA
BIZKAIKO FORUALoUNDIA

# 5 aboetako bizilagunek bakarrik eskatu dute fatxadak berritzeko diruiaguntia

## Udalak milioi batera jaitsi du proiektu honetarako aurrekontua

`Debegesa'k eta Udalak etxebizitzak berritzeko plana martxan jarri zutenetik oso jende gutxik azaldu du kanpainarekiko interesa. Proiektu horren barruan erreka aldeko etxeen fatxadak konpontzeko asmoa zegoen. Udalak horretarako 10 milioi pezeta jarri zituen hasieran, baina 5 etxek besterik ez dute eskatu fatxada berritzeko laguntza, beraz, milioi batera jaitsi dute proiektu honetarako aurrekontua eta gainontzeko 9 miliniak Udalak dituen beste behar hatzuetarako erabiliko dituzte.



*Hasierako f11 toilioietatik 1.094.000 pla. erabiliko dita fatsadak margolzeko. Gainontreko dirua heste behar hatzuetarako onten da.*

Udaletik adierazi digutenez, "hasieran uste genuen baino gutxiago izan dira fatxadak berritzeko interesa azaldu duten herritarrak. Jendeak uste zuen erakundeek emango zutela laguntza guztia fatxadak konpontzeko, baina hori horrela ez denez, atzera hota dira asko. Etxe barrukoa zaindu arren kanpokoarekiko ez dute kezkarik azaldu partikularrek".

Errosario kalean 25, 13 eta 31 portalek berrituko dute fatxada eta San Frantzisko kalean, herriz, 3 eta 49 zenbakietakoak konponduko dira. Guztira 1.094.000 pta.ko dirulaguntza emango du Udalak, eta dirua fatxada bakoitzaren azaleraren arabera banatuko da

### Epea zabalik

Dena den, 'Debegesa'n esan digute oraindik hilaren amaierara hitartean laguntza eskatzeko eta informazioa jasotzeko epea zabalik dagoela, beraz, baliteke beste etxeren bateko fatxada ere konpontzea. Beti ere kontutan hartuz erreka aldeko eraikuntzetan egingo direla herritze lanak.



# Elgoibarko eta Urola bailarako 125 gaixo eta elbarritu Elgoibarren elkartu ziren igandean

Joan den igandean, hilaren 12an, Urola bailarako eta Elgoiharko 125 gaixo eta elbarritu elkartu ziren Elgoibarren, Herriko Osasun Pastoralak antolatutako konbibentzian hartu zuten parte guztiek. Eguerdiko 12:30ean Parrokian meza entzun eta argazkia atera ostean, lagun arteko hazkaria egin zuten. Bazkaldu ondoren erromeria giroan egon ziren guztiak Jubilatuen Biltokian eta Galiza Etxekoek ‘queimada' ekarri zuten Magosto Egunaren aitzakian. Antolatzaileek laguntza einan zuten elkarte gastronomikoei, 'Eroski'ri eta Jubilatuen Biltokikoei eskerrak eman nahi dizkiete egindako lanarengatik.

## Erantzun ona izan zuten asteburuko kontzertuek

joan den astebuman bi kontzenu izan ziren Elgoibarren eta hiek ala hiek erantzun ona izan zuten jende aldetik. Ostiralean 200 lagun inguni elkartu ziren Mikel Urclangadnen kantuak Herriko Antzokian entzutera. Udaleko Euskara eta Kultura Sailek antolatutako euskal kantagintza egitasmoaren hintgarren saioa izan zen eta adiemzi digutenez, datonen abenduaren 15erako Gart.xot folk talde getxotarraren kantaldia antolatu dute. Bestalde, larunbatean Gaztetxra leporaino bete zen Su Ta Gar talde eibartarraren kantuekin gozmzeko. 13eraz, bi kantalcliak arrakastatsuak izan zirela esan claiteke, eta jendea gustura atera zenez, aurrerantzean ere hala izatea espero clute antolatzaileek.





## 400 kilo gaztaina erre zituzten Magosto Egunean

joan den larunbatean, hilaren 11n, Galiza Etxeak antolatuta Magosto Eguna ospatu zen. Elkarteak Urasandin duen egoitzara ingumm zirenek gaztainak jateko eta Errioxako ardoa edateko aukera izan zuten. Izan ere, antolatzaileek guztira Galiziatik ekarritako 400 kilo gaztaina erre zituzten eta 500 litro ardo hanatu. Elkarteko lagun ugari eta beste hainbat herritar joan zen Galiza Etxera egunean zehar eta e.san digutenez giro polita sortu zen benan.



## PSE-EEren batzarra

Elgoibarko PSE-EE alderdiak talcleko afiliamei hatzarrerako deia luzatu nahi die. Bilera bihar, hilak 18, larunbata, izango da eguerdiko 12:30ean alderdiak Urasandin cluen egoitzan. Besteak beste Gipuzkoako Kongresurako ordezkarien hautaketa izango clute mintzagai.

## Patxi Arriola "Jara y Sedal" telebista saloan

y Sedal" ehiza eta arrantzari burt.tzko telebista programa ezagunean agertuko da Patxi Arriola datorren ostiralean, hilaren 24an. Saioa iaz gn.thatu zuten Nafarroan eta bertan Patxik bere txakurren laguntzaz oilagorrak nola ehizatzen clituen ikusteko aukera izango da. Ehiza gogoko duzuenok ostiralean, arratsaldeko 4:45 ingutuan Espainiako Telehistako 2. katea piztu eta Patxi Aniola ikusi ahal izango cluzue.

## Loteria primitiban 5.800.000 pta.ko saria eskuratu du elgoibartar batek

joan den urriaren 19ko loteria primitiboko zozketan 5.800.000 pta.tik gorako dirusaria eskuratu zuen elgoibartar batek. Gabilondo estankoan esan digutenez, aste honetan bertan kobratu du saria benitar honek. Badimdi, Elgoibarren suerteko dabilela jendea, izan ere, itsuen zozketak 5 milioi inguruko beste ,sari hat utzi du herrian. Jabler Idanuga izan da saritua. Zorionak





LI KI DAZIOA

ARTIKULU GUZTIAK %50era

Pedro Muguruza, 8 • Tel. 943 741 642

# INTERESEKO TELEFONOAK

## OSASUNA
Anbulategia .. 943 03 26 10
Planning-a .. 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 94374 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea. 943 03 28 00
Odol Emaileak . 943 74 39 36

## GARRAIOAK
Eusko Trenbideak. 943 74 04 42
PESA (Eibar) . 902 10 12 10
Taxi geltokia 943 74 08 98

## UDALA
Euskara Zerbitzua.. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Udala.. 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua . 943 74 10 08
Udaletxea ......... 943 74 10 50
Udaltzaingoa . 943 74 13 94

## BESTELAKOAK
Elgoibarko Izarra .. 943 74 16 26
Kiroldegia......... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa . 943 74 30 88
Liburutegia. . 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta ......... 943 74 43 15
Parrokia ........... 943 74 08 42
Postetxea ......... 943 74 15 47
Gaztetxea ......... 943 74 35 72

## ADINEKOEN ETXEAK
San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

## IKASTETXEAK
Haur Eskola . 943 74 21 41
HHI (EPA) . 943 74 08 80
Herri Eskola . 943 74 08 79
I.M.H. ............. 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre . 943 74 80 19
Ezenarro (Meka). 943 74 80 19
Ikastola ........... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

## KOMUNIKABIDEAK
BARREN ........... 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia .. 943 74 34 74
Egunkaria............ 943 30 02 28
Gara ................. 943 31 69 99

# infor (T]ClZI Oc

2000-XI- 17

# EuskoTren
TRENAK

DONOSTIA-BILBO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Doriostia vaca 5.47 06.47
Elgoibar 07.02 08.02
Fahar
BILBO-DONOSTIA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilho u6:uu
Eibar 06.13 07.13
Elgoibar 06.23 07.23
DONOSTLA-1111130
Egunero
Donostia kIKRA
0"4" 08.4⁷ 09.47 10.47 11.4⁷ 12.47
Elgoihar
09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14,02
Eihar
09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14 13
Donchlia twk.pt
11.4" 15.-1" litt" 1".4" 18.1" 19.1" 20 4"
Elgoibar
15.02 16.112 1".02 18.02 19 02 20.02 21.01 *22.02*
Eihar
15.13 16.13 1".13 18.13 1913 10.13 21.13 *22.13*
BILBO-DONOSTIA
Egunero
13.1}xl
(k00 10:1111 111.110 11.90 12.00 13.00
Eihar
08.13 09.13 10 13 11.13 12.13 13.13 14.13
Elgoibar
118.23 09.23 10.23 11.23 12.23 13.23 14,23
Bilho
14.00 15.00 16.00 r011 18 110 1900 20,00
Eihar
15.13 16.13 r13 18.13 19 13 21113 21.13
Elgoihar
15.23 16.23 ]'13 18.23 10.23 21.1 23 21.23

# EuskoTren
AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR
Astelehenetlk ostiral lanegunetara
Mendaro {)6.3o cr.2.0
Elgolbar 06,411 r" ..
•orduerdint 1. Menclamn 21 50ean Llzkena

Ltrunbata, igandea eta jaiegunetan
Mendaro 0" 50 09.10 9.50 11.10 11.50
Elgoibar 08.00 09.20 10.00 11 21) 12.1X)
'ordixwo. Nlenclaron 21 50eanazkena

ELGOEBAR-MENDARO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgoibar 25 0⁻25 (r55 98 25
Mendaro 0(.) 35 t;".-10 08.10 08.411
`ordueolim.15.1goiharren 21.25eanazkena

Ilartinbata, igandea eta jaiegunetan
o-.2⁵ 08.25 09.25 10 25
Mendaro 40 08.35 09.40 10.35
*orcluoro. Elgoilurren 21.25ean azkcna

# PESfr
AUTOBUSAK

„4ZPEITLA-BILLIO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elguibar 110.5t) 13.20 18.50
Eibar 07.00 13.30 19.00
Larunbatak lanegunak
Elgolhar 119.50 14.50 18.50
Eihar 10.00 15.00 19.00
Igande eta f aiegunetan
Elgoibar 9.91 19.50
Fihar I0.00 20.00
BILBO-A7PETTIA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilho 1030 1-1.30 21.00
Eibar 11.20 1i.li 21.45
Elgoihar 11.3u 15.25 21.55
**Lirunbat** lanegunak
Bilbo 0,30 1+30 21.00
Eibar 10.15 15.15 21+5
Elgoibar 15.25 21.55
**Igande eta jaiegunetan**
**Bilbo** 12.30 21.OO
Eibar 13.15 21.45
Elgoihur 13.25 21,55
**ONDARROA-BELBAO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
**Fljzolbar -15 OK.-t$ 14.45 -15**
Eihar 8.00 9.1X1 15.011 18.00
Larunbat lanegunak
Elgoibar 7.45 8.45 1445 17.45
Eibar 8.0(1 9.00 15 00 18.00
Igande eta jaiegunetan
Elgoibar 8.-t5 14.45 18.05 19.45
Eihar 9.00 15.00 18.15 20.00
BELBO-ONDARROA
Astelehenefik ostiral lanegunetara
Billxr 9.00 12.30 17.30 19.30
Eibar 9.45 13.15 18.15 20.15
Elpihar 9.55 13.25 1125 20.25
Larunbat lanegunak
Bilbo 10.30 12 .30 1".30 1930
Eihar 11.15 13.15 18.15 20.15
Elgoihar 11,25 13.25 18.25 2025
Igande eta jaiegunetan
131115o 10.311 r..10 19.311 22_1)()
Eibar 11.15 18.15 20.15 22.45
Elgoihar 11 *25* 18_25 20.25 22.55
DONOSTLA-ERMUA (Autopista)
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Donustra 90 9.30 12.30 13.30 14.30
Elgoibar ".35 10.05 13.05 14.05 I5.t15
Eihar ".511 10.29 13.20 14.20 15.20
Donosta 15.00 1⁷.30 Is.y) 19.3{) 20..45
Elgoibar 15.35 18.05 19.05 20.115 21.2(i
Eihar 15.50 18.20 19.20 *20.20* 21 .30
Ltrunbat lanegunak
Donostia 12.30 15_00 1".30 19.30 20.-15
Elgothar 13.115 15.35 18.05 20.05 21.20
Fibar 13.20 15.50 18.20 *20.20* 21.30
Igande eta jaiegunetan
1)onustia 12.30 1".311 1930 20.45
Elgoihar 13.05 18 05 20,05 21.20
Eihar 13.20 18.20 *20.211* 21.30
EILMUA-DONOSTIA (Autopista)
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Eibar 7M0 "30 8.00 8 50 10.30 13.30
Elgoihar ".40 8.10 9.00 10.40 13.40
Eibar 14.30 15 30 18,30 20.30
Elgoihar 14 -10 15.40 18.40 20.40
Larunbat lanegunak
Eihar ''00 8.50 10.30 13.30 18 30
Elgoibar 10 9.00 10.40 13.40 18. 01
Igande eta jalegunetan
Eihar 9 30 13.30 15. 30 18,30 20.30
Elgolbat 9 40 13.40 15.40 18. to 20, 40

ro
euskalteg arigera



# IZENIA eta IZANA

## Begoña Andonegi

**Begoña Andonegi euskaraz ondo hitz egiten ez zekielako hasi zen Don Jose eta Don Jose Antonio apaizekin alfabetatzen. 1956. urte inguruan izan zen hori. Urte batzuk beranduago bera pasa zen haurrei euskara irakastera eta beranduago euskaltegian ere ibilitakoa da.**

Eskola bukatu zuenean **15** urte zituen Begoña Andonegik. Euskara hobetzeko beharra zuela ikusi zuen eta alfabetatze ikastaroetan eman zuen izena. "Euskaraz ulertu eitxen naban, baina ez nintz.an bihar bezela berha eitxeko gattm. Euskantz ondo zakixan jendian talde herdinian sartu ninduen eta arazo euki nitxun haien artian moldatzeko. Ebanjelioa irakurri eta euskaratu eta antzerako itzulpenak eginez ikasten gendun garai hartan. Umandin gramatika liburua zan zakagun bakarra". Ezkondu eta umeak eduki zituenean, euskara a i 1 a hobetzeko beharraz jabetu zen eta berriz ere euska-ra ikasten hasi zen 15 urte beranduago, oraingoan gau eskolan. “Semiak koskortzen dianian eurekin berba eitxeko euskara pobria nakala konturau nintzalako hasi nintzan berriz ere euskara ikasten". Oncloren umeei euskara klaseak ematen hasi zen Begoña parrokiako geletan. "Miren Vallejok eta Lurdes Alberdik haur nagusixei ematen zizkieten klasiak eta nik bdkixauri". Handik pare bat urtera herritar batzuk I kastola sortzeko asmoa azaldu zuten eta Begoña ere tartean izan zen, ernakume bakarretakoa izanik. Geroago AEK euskaltegia izango zenean hasi zen euskara irakasten. "Beste andnt batzukin batera Bergaran atera naban euskara irakasle titulua. 5 urte ein nitxun AEKn. 3 urte klasiak ematen eta beste 2 buleguan. Neretzako bulegoko lana errezaua zan, nahiz eta klasiak enunia politxaua izan. Ikasliekin sortzen dan han.emana, batez ere gaztienekin, politxa zan, baina klasiak prestatzia gogorra eiucen jatan".

# KONTU ZAHARRAK



Subin Osorok, Felix Etxeberriak eta Jesus Larrañagak sortu zuten Elgoibarko Izarra (Kultur Elkartea)

- 1958an umeak euskal giroan hazteko sortu ziren taldeek lokal arazoak izaten zituzten. Besteen lokaletan ibiltzen ziren eta askotan kalean gelditzen ziren. Loritoko lokala (Goiti) erostea erabaki zuten 1962an, arazo honi aurre egiteko.
- Lokala erosi zutenean umeekin arraisalde baizuetan bakarrik elkartzen ziren bertan. Lokala egun osoan aprobetxatu ahal izateko Ikastola marixan ipintzea erabaki zuten eta 1962-05-02an hasi ziren eskolak.
- Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteci ere garai hartan sortu zen. Eta denbora gulxian 1.400 bazkide izatera iritsi ziren.
- 60ko hamarkadan gazteak alfabetatzen hasi ziren. 'Zeruko Argia' eta Anaitasuna aldizkariak erabiltzen zituzten eskolako material gisa. Lehenengo irakurri eta ondoren artikulurik onenari buruzko iritzi ariikulua idazten zuten klasean,

# ikosleekin berbetan



## Maria Perez
Goi moilo

Maria Perez 23 urteko elgoibartarra da. l'xikitan euskara ikasi bazuen ere, urteen poderioz erabilpen ezak zekiena ahaztarazi zion. Lau urtez jarraian euskaltegian ibili ostean utzi egin zuen. Iaz berrfro hasi zen euskaltegian eta maila jatorra duela ere esan beharra dago.

Euskara maila galdu egin zenuela esan diguzu, nolatan izan zen hori?
Gurasoek ez clakite euskaraz eta ez claukat etxean euskaraz egiteko ohiturarik. Ahizpak hitz egiten badu ere, inoiz ez dut berarekin euskara erabiltzen eta piskanaka-piskanaka maila gakzen ari nintzela ohartu nintzen. Gainera, Elgoibarren lasai asko molda naiteke euskara jakin gabe

Zein helburu dituzu?
Momentu honetan ahalik eta hobekien euskara ikastea da nire heibunta eta gero, agian EGA titulua ateratzen saiatuko naiz. Lana topatzeko ere ondo etortzen da. Ez da nire kasua, egia esan, haina ongi etorriko zait.

Zer egin behar da euskaraz hitz egiteko orduan lotsa galtzeko?
Onena ezagutzen dituzun pertsonekin hitz egiten hastea da, horrela lotsa gutxiago izaten haita. Elgoibarren berriz dendetan euskara erabiltzeko aukera zabala dago eta hori aprobetxatzea garrantzitsua da, soltura gehiago har daitekeelak(>.

Inoiz seme edo alabarik izanez gero?
Ni euskara heraien anta hizkuntza izaten saiatuko naiz. Ahal dudanean euskaraz hitz egingo diet eta gero, noski, etxekoekin eta nire gurasoekin erdaraz egin heharko dute.

## Fran Bao
Behe moilo

Fran Book lau urte egin ditu euskara ikasten baina azken aldi honetan geldialdi luzea egin du. Iltasketak zirela-eta alde batera utzi behar izan zuen euskararena eta orain, denbora gehiago duenez, berriro ekin dio zeregin horri. Berak dionez gainera, inoiz baino gogo handiagoarekin.

Zaila egiten al zaizu euskara ikastea?
Ez, ez zait zaila iruditzen baina horretara jarri behar da, Lehen ez nuen horren arreta handiz hartu eta oraingo honetan ondo hitz egitea lortuko duciala uste dut.

Zer esango zenioke norbaitek euskaltegira joan edo ez erabaki ezinda balego?
Merezi duela eta dudarik ez izateko. Egia esan, Elgoibarren bizitzeko ez dut euskara jakitea behar beharrezkoa ikusten, jakin gabe ere aurrera irten naiteke, baina niretzat oso garrantzitsua da.

Zein mailatara iritsi nahi duzu?
Ondo hitz egitera. Lehen norbait euskaraz hitz egiten entzuten banuen elkanizketa horretatik ihes egiten saiatzen nintzen. Orain berriz, gelditu eta hitz egitea dut helburu. Ulertu egiten dut haina sokurarekin hitz egitea nahiko nuke.

Zein da euskara ikasten hasi zinenean entzun zenuen hitzik edo esaldirik arraroena?
Agian ez da arraroena, baina niri asko kostatu zitzaidan "zure buruarekin zer egin nahi duzu"ren esanahia ulertzea. "Zeure burua" horren esanahia zer zen ez nuen hatrapatzen.



# 'TERTULIAK' egitasmoa

## IKASLEEK EISKALTIGMK KANPO EUSKARAZ BERBA EGITEKO PRESTARTAKO PROGRAMA BEREZIA

### Iazko balorazio positiboaren ostean, ARIGERAko arduradunek urtea amaitu aurretik tertuliekin hastea erabaki dute

ARIGERA proiektuaren helburuetako bat euskara ikasleei euskaltegitik kanpo euskara erabiltzeko aukera eta espazio berriak eskaintzea cla. Izan ere, euskara ikasten cluen jende askok ez clauka euskaraz hitz egiteko aukerarik eta euskaltegian bakarrik egiten duenez, pausu hori ematen lagundu nahi die ARIGERAk.

Aurrean aipatutako helburuak lortzeko asmoarek in, If1ZkU ikasturteart, 'Tertubak' izeneko egitasmoa jarri zen martxan. 10 talcie osatu ziren ordutegi eta egun desberdinetan eta guztira 50 bat lagunek hartu zuten parte. Taldeak euskara maila eta ordutegiaren arabera osatuta zeuden eta 3 lagunetik 7ra artekoak izan ziren.



Hamabostean behin TOLETXE tabernan elkartzen ziren ARIGERAko teknikariarekin. Orclubete inguru pasatzen zuten kafe giroan eguneroko gauzetaz hitz egiten hau da,film, albiste edota asteburuan egindakoaz.

Bukatzeko, aurten berrikuntzak izango ditu egitasmoak. Alde batetik, maiztasunari clagokienean astero elkartzeko aukera luzatuko zaie eta bestetik talde hauetan euskaraz dakien edonori parte hartzeko aukera eman nahi za io.

*lazko tertulietan 5f) hat lagunek hartu zuten parte.*

## "OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETA

1. **Zer egin du Realak? Bi eta bat irabazi.**
2. **Nik neuk ez nuke hori egingo.**
3. **Goaz beste bateral**
4. **Ez dakit etorriko bada.**
5. **Gauza bat erosi dut.**
6. **Barren hori horrela da!**
7. **Nahi al duzu ogirik?**
8. **Zenbat balio du? Mila bostehun.**

Zortzi esaldi hauetan, 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, okerrak zein diren asmatu eta zuzen idatzi behar dituzu. Okerrak zuzendu ostean, moztu papera marro etenetik eta bidali honako helbidera abenduaren 22a baino lehen: Arigera proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar. Euskara ikasleok euskaltegietan ere entrega dezakezue.

1.....................................................................................................
2.....................................................................................................
3.....................................................................................................
4..........................

Izen abizenak ...............................................
Telefanoa.....................................................

00. Parte hartzen duzuenon artean SARI BAT zozketatuko dugu!

# GALDEdebalde

## Ba al duzu ARIGERAk antolatutako ourtengo tertulietan parte hartzeko asmorik?



LOLA FARIÑAS
Behe maila
Bai. Tertuliekin euskaraz hitz egitera ohitzen zara eta horrekt gehiago praktikatzen duzu. Gainera ez daukat etwan euskaraz egiteko aukerarik eta oso ondo etortzen zait,



MIGEL CORREA,
Goi maila
Bai. aurten ere en'epikatzeko asmoa dut. Euskara ikasteaz gain jenclea ezagutzeko. Euskaraz hitz egiteko aukera ematen du. hestela ez baita oso erraza.



ESTLBALTIZ ARANEGI
Goi maila
Bai, euskaraz hitz egiteko aukera paregabea da. Kalean ez dut euskaraz egiten eta ongi elorriko zait. Gehienetan pentsatzen ez K.Isteagatik, erdarara jotzen baitut hitzegiterakoan.



RICARDO MOLINA
Behe maila
Bai, piska bat praktikatzeko. Askotan gauzak jakin arren ez ditugu esaten eta praktikatuz gero, errazagoa da. Euskattegitik kanpo ez dut asko hitz egiten eta hau aitzakia da.

## erdoldunok izondoko EUSKAIDUNAK

aco Navarro orain dela 7 urte hasi zen euskara ikasten, "batetik ez nengoen nire buruarekin konforme, jende guztiak euskaraz egiten zuelako nik izan ezik. Bestetik, irakaskuntzan EGA edo 2. perfila eskatzen dute". Urte hauetan euskaltegian aritu izan da Paco eta udaran baita barnetegietan ere. Euskaraz ongi moldatzen den arren gehienetan gaztelania erabiltzen duela eson digu Paco Navarrok. "Norbaitek euskaraz hitz egiten badit ni ere euskaraz jarraitzen saiatzen naiz, baina nire inguruan gehienek erdaraz egiten dutenez, erabiltzeko aukera gutxiago daukat". Euskara lanerako erabiltzen du batik bat, baina dendetan ere batzuetan hitz egiten du euskaraz, konfidantza emanez gero bai behintzat. "Ni irakaslea naiz eta baditut ikasleak beraien artean euskaraz egin arren irakasleoi erderaz hitz egiten digutenak, hori ohitura kontua da". Euskara ikasten jarraitzeko asmorik baduen galdetuta zera erantzun digu: "Titulua atera artean ikasten segituko dut, atera ezean amorrua emango lidake, beraz, nola edo hala atera behar dut".




## AURREKO "OKERRAK **ZUZENTZEN"** LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

**X ESALDI OKERRAK**

**i. Oso ondo pasatu naiz oporretan.**
**3. Gaur goizean eskola bidean ikusi dizut.**
**6. Bero asko egiten du gaur.**
**7. Hori nik zure bezala egingo dut.**

**ERANTZUN ZUZENAK**

**i. Oso ondo pasatu dut** oporretan.
**3. Gaur goizean eskola bidean** ikusi zaitut.
**6. Bero handia egiten du gaur.**
**7. Hori nik zuk bezala egingo dut.**

**52 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE ETA...**

1315.
Sis.U1'1

**RUBEN URRIZA da**

**Saria:**
Bi pertsonarentzat afaria
Toletxe tabernan

*Dominga Astigarragak 80 urte ditu. Bera azkoitiarra da jaiotzez, baina dagoeneko 50 urte daramatza Elgoibarren. Duela 31 urte, bere semea EEBBetara joan zen pilotan jokatzera, eta ez zen bueltatu. Dominga ez da etxean geiditzen den horietakoo, eta semea ondo zegoela jakin arte ez zen batere lasai bizi. Hortaz, maleta egin eta Ameriketara joan zen. Dagoeneko 1au aldiz izan da bertan, eta gaurkoan gure artera ekarri dugu hango esperientzia kontatzera.*



# "Ama batek semcarengatik edozer egingo lup<e"

- Noiz izan zinen lehenengo aldiz EEBBtan?

Duela 25 urte. Orcluan bakarrik joan nintzen, eta hilabete pasa egin nuen bertan. Miamitik hegazkinez ordu betera dagoen herri hatean egon nintzen, Tampan. Esperientzia oso polita izan zen, eta gerora ere, heste hiru aldiz joan naiz. Bigarrengoz izan nintzenean, nire senarra eraman nuen nirekin, semea non hizi zen ikusi zezan. 13i hilahete pasatu genituen bertan, eta ni oso gustura egon nintzen, haina nire senarra ez zen gelnago itzuli. Hintgarren akliz orain dela harnahint une joan nintzen. eta azkenekoz pasa den ekainean. Osasun aldetik ondo ikusi nuen nere hurua, eta farniliak ere izugarri animatu nincluen.

- Zerk bultzatu zintuen bidaia luze hori egitera?

Serneak. Ama hatek semearengatik edozer egingo luke. Nire semea, FEBBetara joan zen pilotan jokatzera eta bertan gelditu zen. Ernakume kubatar hatekin ezkonclu, eta hi alaha izan zituen. Dagoeneko, hirramona ere egin natite

- Zer sentitu zenuen setneak han gelditzen zela esan zizunean?

Kolpe gogurra izan zen. Semearen hi lagunek el112111 zidaten icthistra, eta hasieran ezin nuen .sinestu ere egin. Geroago, bere gutun bat jaso nuen: barkamena eskatzen zidan, baina emakume on hat ezagcau eta herarekin bizi izaten gelditzen zela zioen. Tristura handia sentitu nuen nire harrenean, baina here nahia zenez. gustura onartu nuen.

- Nolakoa da hango bizintodua?

Oso clesherdina. Hemengoarekin alderatuz oso gogorra da. Han ez dago jairik. eta igande askotan ere lan egin behar izaten dute.

- Sekula ez al duzu pentsatu han gelditzerik?

Ezta pentsatu ere. Lau alcliz izan naiz benan. baina nire tokia hemen clago. Askotan esan didate beraiekin gelditzeko, hatez ere, bazkalorcluan. Han ez da batere ondo jaten, eta nire jakiak nabiago dituzte. Hata ere, nik nahiago dut etxera itzultzea.

- Beraiek izan al dira sekula henaen?

Nire semea hirritan izan da, haina bere senitartekoak ez dira sekula etorri. Beraiek ere baciaukate hona etortzeko gogoa, eta ahal badute hi urte barru etorriko clirela esan diclate.

**"Lau aldiz egon naiz EEBBetan baina adinean ere aurrera noa eta ez nago berriz horrelako bidaiak egiteko".**

- Berriro joateko asmorik?

Ez, gehiago ez. Nik argi eta garhi esan nion semeari azkena izan dela. Dagoeneko adinean ere .turrent noa, eta ez nago horrelako hidaiak egiteko sasoian. Ordu 21sko dira: autobusa hartu, gero hegazkina, AtIantan begazkinez aldatu... oso gogorra da. Gainera, orain Iparraldeko Carolinan hizi dira eta toki hori ez dago niretzat egina. Mendian galdutako etxe bat daukate eta herritik oso urrun tzen da. Alde hatetik bestera joateko derrigorrez kotxea behar da. Ingunmea ikusgarria da, eta etxea benetan ederra da, haina niri ez zait hatere gustatu. Altura gehiegi dago, eta tentsioarekin ere arazoak izan ditut Hilabete egin dut benan, eta zeharo :.tspertuta etorri naiz.

Ainhoa Andonegi

# <ultura

## [1] <ontzertu hoberena ez ca ikusgarriena, oarruan zerbait ikutzen cizuna Daizikt




*Jabier Muguruza musiko irundarrak kontzertua eskainiko du gaur, ostirala, Toletxe tabernan gaueko 23:00etatik aurrera. Elgoibarren bere azken diskoko (Fiordoan) abestiak aurkeztuko ditu gehien bat, tarteka hainbot kanta zaharrago eginez. Momentu honetan bosgarren diskoa ari da prestatzen. Duela ia zazpi urte "Boza Barruan" izan zen bakarka kaleratu zuen* lehen *diskoa. Geroztik "Kitarra bat ninizen", "Aise" eta "Fiordoan" etorri ziren, Aipaizeko modukoa da "Aise" eta "Fiordoan" urteko cliskorik onenak aukeratuak izan zirela, estatu mailcrn, 'Rock De Lux' aldizkariko kritikari guztren artean*

- Nola definituko zenuke zure musika **edo estiloa?**

Zaila da clefinitzen. Iiatzuek intimista dela diote. beste batzuek sujerentea, sentsuala... nik esango nuke benetakoa dela, batez ere tranparik gabekoa.

- Kantautoretzat al duzu zure burua? Gogoko al duzu etiketa hori?

Kantautore hitza ez dut gaizki ikttsten. Baina niretzat musika hitzak bezain inportantea clela azpimarratzea interesatzen zait. Beraz, kantautorea hai haina ez batzutan ulertzen clen eran.

> - gaur egun musikan clena asmatuta dago, baina aldi berean lan pertsonal hat aurrera eramatea posiblea da -

111 Bestalde, kantautore askori lagundu diozu akordeoia joaz. Akordeoia jotzea ala abestea, zer nahiago duzu?

Biak onclo daude. Funtsezkoena zera cla: egiten duzun hori henetan sinestea. Zure lanean sinestuz gero, gutxienc.:oa da zu zeu kantari aritzea eclo beste bati instntmentu batez laguntzea.

- **Elgoibarkoa kontzertu intimoa izango da, taberna baiean baita. Zuretzako nolakoa da kontzertu perfektoa?**

**Gustuko ditut** kontzertu intimoak, gamtntzitsuena komunikazioa lortzea baita. egun desagertzear clagoen komunikazioa. Horretarako oso inportantea izaten cla nutsikariaren eta ikusleen jarrera. I3i aldeen arteko kimikak funzionatzen baclu, ziur egon kontzenuak mereziko duela,

- Gogoan duzun kontzerturik?

Bai, attnen, beste batzuen artean, Bilbon eta Irunen emandako kontzertuak. Katalunian ere harrera gero eta beroagoa egiten digute. Irailean, adibiclez• kontzertu bat eman genuen Vie-en (Mercat de la Musica Viva delakoan), guretzat ahaztezina izango dena. Eserlekuak beteta. jendea antzokiaren pasiloetan lurrean eserita, asko kanpoan sarrerarik gabe, publikoaren jarrera. eskaini ziguten arreta... guretzat oso fuertea izan zen. benetan.

- Eta ikusle moduan izan zaren kontzerturik onena?

Niretzat kontzerturik hoberena ez da ikusgarriena, gaur egun modan dagoen bezala, baizik eta barruan zerbait ukitzen dizuna. Niretzat su artifizialak, teknika, efektuak, argiak... bigarren mailako elementuak clira.

1111 Muguruzatarrak musikaren munduan sartutako hiru anaia zarete. Zein izan ziren zuek musikara aritzeko faktore nagusiak?

Egia esan, ez dakit. Familian ez dago aurrekaririk. Nik dakiciala abiapuntu komun bakarra txikitan denok eskusoinua ikasten hasi ginela da.

- Musikan dena jadanik entzunda dagoela uste al duzu, hau da, guztia asmatuta dagoela, ala oraindik badaude harritzen zaituzten gauzak?

Gai luzea da eta oso interesg2trria. Musikan gaur egun dena asmatuta dagoela uste clut, baina aldi berean. lan pertsonal bat aurrera erarnatea posible dela iruclitzen zait. Hau da, ezin da dagoeneko astuakizun berririk egin, baina gaur ere bacla nortasun handiko egilerik. Hori da inportanteena, eskura duzun informazioarekin zeure proiektu propioa garatzea, nortasunekoa, sinesgarria eta topikoetatik ahalik eta urrunen kokatzen dena.

# 45 elgolbartarrek hartu dute parte Beholtia-Donostia lasterketan

## Herritarren partaidetza nabarmen jaitsi da, iaz 75 tagun izan ziren

Antengo Behobia-Donostia lasterketa ierrikoian ia 10.000 lagunek hartu zuten parte clomekan, hilaren 12an, eta harietatik 45 elgoibartarrak izan ziren. Urtetik urtera gora egiten du 20 kilometroko lasterketa honetan parte hartzen duten eigoibartarren kopuruak, baina aurten jaitsiera nabarmena izan da, iaz baino 30 herritar gutxiagok eman baitzuen izena. Donostiako Boulebardean zegoen helmugara iritsi zen lehen eIgoibartarra Oscar Malvar izan zen 1:11:46 clenborarekin. Osear sailkapen nagusiko 102, postuan iritsi zen, habazlearengandik 10 minutura. Lehen emakume elgoibartarra Pilar Arriola izan zen 1:29:22 denbararekin eta helmugara iritsi zen 15. emakumea izan zen. Lehen mendarotarra, berriz, iker Mayora izan zen bigarren urtez jarraian, Honen denbou ere benetan bikaina izan zen 1:10:21. 12,trraian agertzen clen taulan lasterketan izan ziren elgoibartarren eta mcndaroiarren denhorak eta kategoria bakoitzean eginclako postua agertzen dira. Fortuna Klubak emandako tillilkapena cla, eta oraingoz probisionala dela adierazi digute. Aurten, gainera, denborak hartzeko ehip sistema berria estrainatu dute eta badirudi uste baino araza gehiago izan dituztela antolatzaileek.



*Udal Kirol Patronatuak antolatutako autobusean joal ziren korrikalariak. Elgoibarren ateratako argazkia*

### 11 LFCAPI NA

| ABIZINAK | IZENA | POSTI1A | DENBORA |
|---|---|---|---|
| MALVAR CID | OSCAR | 102 | 1:11:48 |
| RUIZ DEL REY | J. ANTONIO | 242 | 1:10:02 |
| GABILONDO ALTUNA | 1BON | 251 | 1:16:13 |
| MUJIKA UFIAIN | ARKAITZ | 404 | 1:18:35 |
| ETXANIZ ZIALTIEFA | IÑIGO | 521 | 1:19:52 |
| IIIEGUEL ALBERDI | IGOR | 593 | 1:20:37 |
| KAPANAGA GABILONDO | IMANOL | 1083 | 1:24:45 |
| LEGI·1: URUNIUMIAMENDIARAZ | MIKEL | 1267 | 1:26:11 |
| PEREZ ALVAREZ | IGNACIO | 1387 | 1:28:37 |
| ARRIOLA 0111 | PILAR | 1884 | 1:29:22 |
| ESP1GA MEIRE | L. ANGEL | 18813 | 1:29:22 |
| ARRIETA ARIZNABARRETA | IÑAKI | 2104 | 1:30:21 |
| ARRIETA VALLEJO | ASIER | 2221 | 1:31:00 |
| AGIRREBEÑA LARRAÑAGA | XABIER | 2374 | 1:31:55 |
| GONZALI2 JARAMILLO | TOMAS | 2439 | 1:32:17 |
| ANSOLA AIZPITARTE | IÑIGO | 2469 | 1:32:30 |
| ETXANIZ ARAMENDI | J.JOESE | 2597 | 1:33:12 |
| FERNANDE CARBALLO | J.MANUEL | 2912 | 1:34:51 |
| ARANZABAL GOMEZ | RICHARD | 3000 | 1:35:17 |
| IZAGIRRE IZAGIFIRE | J. IGNACIO | 3102 | 1:35:52 |
| AL171FIREKA ETKEBERRIA | ROBERTO | 3140 | 1:36:32 |
| ARREGI INCHAUSTI | MIKEL | 3583 | 1:38:11 |
| LERSUNDI LARRAÑAGA | J. N1ARIA | 3867 | 1:38:39 |
| URIBE OURIA | EHUAROO | 4017 | 1:40:13 |
| AROSA ANSOLA | L. FERNANDO | 4227 | 1:41:09 |
| IBABE IRIONDO | AITOR | 4294 | 1:41:27 |
| OÑEDERRA BERISTAIN | JABIER | 4453 | 1:42:10 |
| ZUBIAURRE LIZARRALDE | AITOR | 4836 | 1:43:48 |

| ABIZENAK | IZENA | POSTUA | DENBORA |
|---|---|---|---|
| ARAUJO NARBAIZA | IÑIGO | 4837 | 1:43:48 |
| IPARRAGUIRRE TDRRES | 1111G0 | 4841 | 1:43:48 |
| GUALLAR PEREI | JAVIER | 4846 | 1:43:49 |
| AYESTA AFIRUZA | CARLOS | 5520 | 1:46:59 |
| PUYADENA ALBER01 | JAVIER | 5844 | 1:47:32 |
| ESTIBARITZ ASTARLOA | IZASKUN | 5876 | 1:47:45 |
| ALKORTA ASTIGARRAGA | ANDRES | 5937 | 1:49:05 |
| SANTIAGO ROORIGUEZ | GLORIA | 6488 | 1:51:57 |
| AZPELETA ITURRICASTILLO | TOMAS | 6591 | 1:52:34 |
| EKURRA LOIOLA | FELIX | 6987 | 1:54:43 |
| URIARTE ECENARRO | BORJA | 7105 | 1:55:32 |
| URBIETA SANZ | ION | 7683 | 1:59:59 |
| ESTIBARITZ ASTARLOA | M.JOSE | 7739 | 2:00:25 |
| IRIONDO ELORZA | JOSU | 7891 | 2:01:39 |
| ARNAIZ ASTIGARRAGA | XABIER | 8013 | 2:03:08 |
| FIOA DELGADO | RICHARD | 8015 | 2:113:10 |
| | | | |
| MAYORA ELIZONDO | IHEFI | B8 | 1:10:21 |
| DIAZ ALBERDI | IGNACIO | 839 | 1:23:13 |
| SANTAMARTA AGIRRE | CARLOS | 1488 | 1:27:89 |
| ZABALA | GORKA | 2615 | 1:33:18 |
| RUBIO VECINA | J. MIGUEL | 3359 | 1:37:13 |
| SALEGI ARRIOLA | ANASTASIO | 3699 | 1:38:50 |
| GOIKOETXEA | AITOR | 4700 | 1:43:12 |
| MENDIKUTE | JON | 4787 | 1:43:33 |
| RENARRO | AITZOL | 5237 | 1:45:35 |
| BERASALUCE IRIONDO | AGUSTIN | 8088 | 2:04:02 |

## EMAITZAK

**Futbola**

Trintxerpe 1- Haundi 2 (Pret.)
Pedrusko 1- Orioko 0 **(1. erreg.)**
Elgoibar **9** - Almen **1 (Neskak)**
Elgoibar 1- Mutriku 0 **(1. kad.)**
Elgoibar 0 - Mariño **1 (Oho. jub.)**
Soraluce **2** - Elgoibar 1 **(1. erreg.)**
Lengokoak **5** Elgoibar **2 (Oho. inf.)**

**Eskubaloia**

Arrasate **18** - Gaur **Elg. 19 (Kad. mut.)**
Elg **18** - Urdaibaill **(Senior nesk.}**
Arrasate **31** - Tecnituelle Elg. **22 (Senior mut.)**
C. Amenabar **19** - I.M.H. Elg. **24 (Senior mul.)**

**Saskibaloia**

Elgoibar S.T. **47** - Irungo Beti Gazte **54**

**Esku Pilota**

**Gipuzkoako Txapelkela**
LoiolalUbera **22**
Iglesias/Alzuri **(Inffaurrondo)**
Agirrebefiallriondo **22**
Aranberri/Alberdi **17 (Bergara)**
Aranburu/Arrieta **22 (Behar Zana)**
Ansola/Lazarobazter **7**
Orena/lrazustabarrena **18 (Andazpe)**
Ulazia/Arizmendi **22**

**Idarraga kafeak 4. saria**

**HAUNDIko jokalari erregularrena 00/01**

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Zu laika | 14 |
| 2- Laskibar | 13 |
| 3- Lander | 11 |
| 4- Saiz | 11 |
| 5- Loren | 9 |
| 6- Alkorta | 9 |
| 7- Izagirre | 6 |
| 8- Caro | 6 |
| 9- Unai | 5 |
| 10- Portu | 4 |
| 11- Mugika | 4 |
| 12- Gurruixaga | 2 |
| 13- Joseba | 3 |

## AGENDA

**Futbola, M** ntxetari

**Larunbala, 18**
**16:00** Pedrusco - Ordizia **(1. erreg.)**
**Igandea, 19**
**12:00** Elgoibar- Hernani **(Oho. int.)**
**17:00 Haundi** - Oiartzun **(Pref.)**

**Eskubaloia,** Kiroldegian

**Larunbata, 18**
**15:30** Pagoaga **Elg.** - Kukullaga **(Kad. nesk.)**
**17:00** Unceta Elg. - Kukullaga **(Jub. nesk.)**
**18:15** Tecnifuelle Elg. - Arrate **(Senior mul.)**
**19:30 IMH. Elg.** Escolapios **(Senior mut.)**
**Igandea, 19**
**11:15** Gaur Elg. - Aloña-Mendi **(Kad. mut.)**

**Esku Pilota,** Ikastolan

**Oslirala, 17**
**10:00 Lagunak** Altzatarra **(Kad.)**
**10:30** Lagunak Beloki **(Jub.)**
**11:15** Lagunak- Aretxabaleta **(Nag.)**

**Areto Futbola,** Ikastolan

**Ostirala, 17**
**22:15** Zur Ta Lur-Cong. Iceberg **(1.maila)**
**Igandea, 19**
**12:30** Zur Ta Lur-Lorategieta **(Euskal Liga)**

# Gorka Garatek Euskadiko Enduro Txapelketa irabazi du junior kategorian

## Jon Leiaristi txapeldunorde izan da beteranoen kategorian

Pasa den drimekan, hilaren 12an, jokatu zen Euskadiko Enduro txapelketako azken lasterketa Barakaldon. Gorka Garate eigoibartarrak irabazi zuen junior kategoriako lasterketa, eta garaipen honi esker sailkapen orokorreko lehen postua eskuratu du. Euskadiko Enduro Txapekkin berriak 3 la.sterketa irabazi clitu gliztira; Elgoibarren, Zallan eta Barakaldon, hain zuzen ere. Beste bi lasterketetan bigarren eta hintgarren postuak lortu zituen. Guztira 5 lasterketa izan clitu aurtengo txapelketak. Barakaidoko azken lasterketara sailkapen orokorreko lehen postuan iritsi zen Gorka, baina hala eta guztiz ere, irabaztea nahitaezkoa zen, bigarren sailkatua, bilhotar hat, puntu bakarrem haitzegoen. Azkenik, bilbotarrak bigarren postua eskuratu zuen bai Barakaldon, eta haita sailkapen nagusian ere. Orain, Gorkak Autonomi arteko Encluro txapelketan hartuko du parte Euskadi orclezkatuz.



*Ezkerretik eskumara, J. Ignazio Babarro, Gorka Garate, Manu Alvarez, Aitor Urain, Aitor Osoro eta Jon Leiaristi.*

**Elgoibartarrak bikain**

Gorkaz aparte. elgoihanarrek meritu handiko postuak eskuratu ditttzte Euskadiko Txapelketaren sailkapen nagusian. Senior mailan esaterako, NIanuel Ahiarezek 4. postua eskunutt clu eta Aitor Osoro 6. izan da. Beteranoen kategorian. Yon Lektristi txapeldunorde izan da eta Luis Outomuro, hirugarrena. Azkenik senior trofeo mailan Aitor Urainek hintgarren amaitu du denlx)raldia. -

# Txomin Rogel Euskadiko Ehiza Txapelketa jokatteko sailkatu da

## Gipuzkoako Txapelketan bigarren postua lortu zuen Txominek



Bi elgoihartarrek hartu dute parte aurten Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapelketan, Zanbranan (Araban). Batetik. Txomin Rogelek eta hestetik, Dani Arenasek. Txomin Rogelek txapelketa bikaina burunt zuen. Zoco bere txakurraren laguntzaz 5 eper eta 4 faisai hota zituen eta higarren postua eskuratu zuen. Gainera, puntu bakar baten aldeaz hakarrik galdu zuen txapela, irabazleak eper hat gehiago ehizatu baitztten. Dani Arenas, berriz, iaz lonutako txapela defenciatzera joan zen, baina 6. postuarekin konformatu behar izan zuen. Txomin Rogelek Euskadiko Ehiza Xelteko txapelketan hartuko du parte lortutako higarren postuari esker.

# Harakateko VII. igoera azaroaren 25ean izango da

## Probako errekorra 'Suso'k du 29'43"denborarekin

Urgazi Triatloi Taldeak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak elkarlanean antolatu duten Karakatera igoera lasterketa azaroaren 25ean, zapatuan, izango da. Aurreko 6 orteetan bezala, Elgoibarko Plaza Handian emango zaio ha.siera frogari. Ineera ordua. goizeko 10:00etan izango da. Izena. egunean bertan eman ahal izango probaren hasiera baino ordu erdi lehenago. Lehiaketari clagokionez, hiru kategoria izango ditu: sailkapen nagusia, emakumezkoak eta edadetuak (5(1 urtetik gomkoak).

Sariak kategoria bakoitzeko lehenarentzat izimgo clira. Igoeraren marka onena jose Maria Fernandez 'Suso' elgoibartarraren menpean dago 29'43¯). Iaz lagunek hartu zuten parte lasterketan, eta elurra eta hotza izan ziren korrikalarien ecsai nagusiak. Hori clela eta. Susok lasterketa irabazi arren, ezin izan zuen bere errekorra hautsi. Aurten ere, pentsatzekoa da dema bortitza izango cleIa aurrekoen anean, eta agian, eguraldia lagun, marka berria izango dugu.



*Argazkian ikus dezakegun moduan, elurra izan zen iazko protagonista nagusia.*

**AGENBA**

Azaroak 18, 5. Jardunaldia

FUTBOL 7, Mintxetan

Benjaminak
10:00 Pilar A- Ikastola F
10:00 Pilar B- Ikastola B
10:30 Herri Eskola A- Pilar C
10:30 Pilar D - Herri Eskola B
11:00 Ikastola C- Mendaro A

SASKIBALOIA, Herri Eskolan

**Alebin mutilak**
**10:30** Ikastola C - Ikastola A
**10:30** Herri Eskola B- Pilar A
**11:15** Ikastola B - Mendaro B
**12:00** Herri Eskola A- Pilar B
**Alebin neskak**
**11:15** I kastota B - Pilar A
**12:00** Ikastola A- Pilar B

ESKUBALOIA, Kiroldegian

**intantil mutilak**
**9:00** Ikastola A - Ikastola B
**10:30** Pilar A- Ikastola B
**11:15** BHI A - Blit B
**12:00** Ikastola A - BH1A
**Infantil neskak**
**9:45** Pilar A- Ikastola B
**11:15** Ikastola C- Mutriku A
**12:00** Mutriku B- BH1A

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak — Enbutidoak

Baserriko ogia — Bolleria

Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 *2 943 74 33 92

BIOK

Alhe

DEKORAZIOR

BARRUKO ETA KANPOKO ESTALDURAK
KORTXOA, MOKETA, P.V.CA
PINTURAK OROKORREAN

Santa Klara 11, behea - Elgaibar
Tel.-faxa: 943 741 552
Mobila: 008 431 119-20

545114

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabaiaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 Sobila) 609 53 23 83



## Langai

Euskal lan Zerbitzua

Deba Beheko enpresa baterako itenoetarako arduraduna behar da. ERREF:40468/2.

Deba Beheko enpresa baterako animazio soziokulturaleko irakaslea behar da. **ERREF: 41551/1.**

Soraluzeko enpresa baterako muntatzaile elektrikoa behar da. **ERREF:** 41134/5.

Deba Beheko enpresa baterako FP lla duten bi pertsona behar dira molde eta fundiziorako. **ERREF: 40467/4.**

Bilbo erdigunean dagoen enpresa baterako 15 teleoperadore behar dira. **ERREF: 36818/3.**

Urola Kostako enpresa baterako igeltsero ofiziala behar da. ERREF: 38008/3.

Urola Kostako enpresa baterako iturgin ofiziala behar cia. ERREF: 37950/2.

Eskaintza hau interesgarria gertatzen baerezu eta lore, nahr izanez gero, gegoan hartu eskaintzaren erreferentzia Houiagai moduan sortzea eskatu nabi backrzu **901222901** telefonora deitu edo 'Lanycli'k Elgoibarren dituen zentru laguntzalle hauetako batera deitu: IFP Elgoi. bar (Alberto hericadillo) **943** 74 BO 19 edo IMH (Ekaitz Mendizabol) **943 74 41 32** telefonora.

## tana

**ESKAERA**

• Orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da. er **943 74 35 05** (1usta). (Bazkal orduetan deitu)

• Deba Behean publizitatea buzoneatzeko edo kartelak pegatzeko eskaintzen naiz. **zr 943 74 39 11.**

• Goizetan garbiketa lanak egiteko emakumea eskalnizen da. zt: **943 74 08 04.**

*Administrort euskalduno eskaintzen da lanerako. Lorea. **ir 678 83 06 69.**

ESKAINTZA

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da Mendaron. le **943 75** 51 47. (Gauez).

• 1. mailako ofiziala behar da mandrinadoran lan egiteko. Euskara beharrezkoa da, er **943** 74 12 **97. 943 74 06 64.**

• Ileapaindegirako laguntzailea behar da ostiral eta larunbatetarako. ter **656 70 70 27.**

• Sukalderako garbitzailea behar da. Neska edo mutila izan dadeke eta lana egunero egin beharko du. **zr 943 74 31 02.**

*Taberna garbitzeko emakumea behar da. er **656 75 83 24.**

• Astean zehar eta asteburuetan administrari lanak egiteko neska edo mulil euskolduna behar da. Bidali curriculumak **206 posta kubtotilara.**

## Salerosketak

Sei edo zazpi urteko haurrentzat mountain bike bizikleta salgai. Egoera **onean, G.A.C.** markakoa da ela 12 kanbio ditu. s- 943 74 21 66.

• Taberna alokatu edo traspasatuko nuke Madala alclean. er 627 60 34 37.

• Buianozko estufa bat, estufa elektriko bat eta frigorifiko bat ditut saltzeko. **943 74 17 26.**

• Bulanazko sukaldea salgai. 2 txapa elektriko eta labe elektrikaa. 2 urte ditu. **zr 943 74 46 35.**

• Ohea egiten den sofa salgai. 0,90. Estreinalu gobe. er **943 74 40 31/ 943 75 62 35** (Gauez).

• Ford Sierro bat dut saltzeko. Oso egoera eta prezio onean. **zr 943 74 06 24.**

**1 Bigarren** eskuko izotzgailua (arkoi erakoa) salgai. Prezio onean. **ir 943 74 01 33.** (Gauez deitu)

## Garajeak

• Pisla beltzean marradun garajea salgai. 73 943 74 19 55.

• Madala ondoan garaje itxia salgai re **943 74 24 06.**

• Arregitorreko dorreen azpian garajea salgai. er **943 74 07 62.**

## Bestelakoak

• Urrezko pubsera galdu nuen King• Kong eta Santa Ana kaleen artean. Aurkitu duenak dei dezala ela sandua izango da. 17 943 *74* 29 46.

• Negatiboak aurkitu ditui Errosario kalean eta Uclaltzaingora eraman ditur,

• Karpeta beltz bat galdu nuen hilaren 7an Plaza Handian edo Leku Ederren. Barruan solFeoko korpeta dago. Aurkilu duenak Udaltzaingora eraman dezala. **943 74 27 89.**

• Kristalezko poterik nahi baduzu, deitu, dokainik dira-eta. **zr 943 74 23 B9.**

• **Riñonera bat** aurkitu dugu "Azkena" dantzaleku inguruon. Barruan monedero **bat,** 2 giliza, telefono mobila eta "Azkena'rako gonbidapenak ditu. *ts* **943 74 02 09.**

***Caritasek 'kotxesilla'** eskaintzen du. Egoera onean dago. **zr 943 74 15 09/ 943 74 03 78.**

Caritasek labadora eta bi silloi behar ditu. er 943 74 15 09/ 943 74 03 78.

• Anton)o Arrillaga inguruan monopatina galdu nuen urriaren 27an, arratsaldez. Topatu duenak **eraman** dezala mesedez Udaltzaingora.

• Kartera marroi bat topatu nuen urriaren 21 ean San Frantziskoko iturria eta King-Kong bitartean. let 943 74 16 26 (Eli).

## Partikularrak

• Neska eskaintzen da partikularrak emateko. Matematika, e.a. **a 943 74 11 34.**

Mi Habana

**KUBAko txokoa Elgoibarren**

P. Migel Urruzuno, 6 behea
labernaren ondoart)

***Pliojito jaia***

**AZARBAREN 1Ban, LARUNBATA**

*Mojito bakoitzarekin opari bat.*

igande arratsaldetan 4etatik aurrera SALTSA DAIIITZALDIA1(

**flH LIW**

*Zulagailu sakonak* **S e**

# Etxebizitzak

e Pisu txiki bat hartuko nuke alokairuan Elgojbarren. Norbaitek pisurik balu, Santa Klara 15-3.era jo.

• Logela bat alokatzen da. **943 74 18 81.**

• Marixan dagoen arraindegia alokatzen da Santa Ana kalean. -a **943 74 26 96/ 943 74 43 29.**

sPisua salgai Soraluzen. Sokaldea, egongela, 3 logela, komuna eta 2 ganbara ditu. a **943 74 46 35.**

Pisua konpartitzeko neska edo mulil bat behar da. 75 **943 88 90 67/ 659 57 20 35.**

# Agurrak

• Zorionak **Mirentxu!** bihar zure urleurrena delako, horrela segi eta urte bat gehiago bete. Ondo pasa eguna nobixuarekin. Lagun misteriotsuen partez. Muatt

Zorionak gure hurbileneko Zorionak **Olatzt** eta Ikerril hilaren 14an 12 urte bete ziezterako. Ondo pasat Zuen adinekoen partez.

* Zorionak **Jon Rodriguezi**, azaroaren 1 lan 11 urte bete ziluelako. Jonen partez.

Zorionak **larunbateko koadrilari:** Nagore L., Nagore A., Maitane, Desire& Sonia, Maria I, Naiara, Saioa... beti juntu goudelako.

• Zorionak **Iker** eta **Olatz Txurrukari,** hilaren 14an 12 urte beie zituztelako. Biek batera, ze kasualitatell DBH 1 osooren partez.

• Zorionak **Olatz Txurrukari,** hilaren 14an urteak bete zitueIako. Ekipokoak.

*Aupa **Imanol:** Ze? Asteleheneon pozik egoteko arrazoia duzu, eh? Zorionak zure adiskide maiteen partez. Eta bereziki, ondo pasa dezazula ile kixkurdun Na...-aren partez.

♦ Zorionak **ama** bihar urteak beteko dituzulako. Egun on bat izatea espero dugu. Irune eta Alazneren partez.

*Zorionak Vickyri, hilaren 14an urteak bete zitugako. Familiaren partez,

• Zorionak **Maiderri,** hilaren 12an urteak bete zieelako. Gelakoen pariez.

# Agurrak



♦ Zorionak **Maialen Gallastegirt**, gaur 6 urte bete dituelako. Etxeko guztien eta bereziki, Maitaneren partez.



• Zorionak **Julia**, hilaren 19an 3 urte beteko dituzula ko. Arnamaren eta ailxitxaren, osaba-izeba eia bereziki, Jairoren partez.



• Zorionak **Julen Arregiri,** hilaren 21ean 3 urte beteko dituelako. Gurasoen eta aitonomonen partez.



• **Zorionak Ifziar,** hilaren 1 5ean 28 urte bete zentlueiako. Zure familiaren partez. Ondo pasa asteburual

***Zotionok Maria Dominguezi,** gaur, hilak 17, 13 urte bete dituelako. Bere logun Soniaren partez.



• Zorionak **Jaime Gabilondori,** hilaren 8an 3 urie bete zituelako. Estibalitzen portez.



• Zorionak **Mendi,** aslearfean 19 urte beteko dihnulako. Lagunen partez. Eiharko eguna dernasa izango da. Ondo pasall



*Aupa Indul Hiri ere allau jak formaitzeko ordua. Kostako 6ajak ere, hemendik aurrera, zon serioen plartlan urfen biok kaera, badakik, andriari besotik helduta. Ondo pasa EEBBetan eta, kontuz, oindik etxuek presidenierik aukeratu eta. Ikusfekua izango zuan Bea eta bixok Etxe Zuriko ataixan jendia agurtzen. Olatz, Rubio, Remen, Txino eta konpainia.



• Superzorionak **Amaia Conderi,** hilaren 20an urteak beteko dituelako. Gurasoen eta ahizpa Kristinaren partez.



Zorionak **Alberto Arriolari,** hilaren 6an urteak bete zituelako. Bere emazte eta batez ere seme Berkii eta Jokinen partez.



• Zorionak **Edurneri** gaur 7 urte bete dituelako. Gurasoen eta ahizpa Irakeren partez.



*Zorionak **Julen Agirregomezkortari,** hilaren 18an 7 urte beteko dituelako. Eixekoen eta batez ere Ibesne, Alazne eta Maitaneren partez.

**OHARRA:**

Merkatu ixikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.

# Farmazia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 1 8 | Etxeberria (Erro5ario kaloard | Etxeberria |
| 19 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 20 | Escala | Escala |
| 21 | Biaasdo | Bidasolo |
| 22 | Exeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 23 | Fernandez | Fernandez |
| 24 | Yudego | Yudego |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** RekaIde, 1 Soraluze
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,** Herriko enparontza 4, Garegarza
Tel 943 75 61 42

**ZABAIETA,** Kaleberren, 9 Soraluze
Tel 943 75 13 84

# okindegia

**OKINDEG1A**

**19** igandea Doña Mercedes

# c1c endo

2000-XI-17




## 17 OSTIRALA

22:15 ZINE KLUBA
"Las confesiones del doetor Sachs"

23:00 KONTZERTUA
Jabier NIuguruza
Toletxe tabernan

## 18 LARUNBATA

11:00 TXUR1URDINERA IRTEERA
DBHko 1 eta 2 mailako gazteentzat
Antolatzailea: Atxutxiamaika eta
GAZ-T aisialdi taldeak

12:30 PSE-EEren BATZAR NAGUSIA
Elgoibarko Elkarte Sozialistan

19:30-22:15 ZINEA
"El hombre sin sombra"

## 19 IGANDEA

19:30-22:15 ZINEA
"El hombre sin sombra"

## 20 ASTELEHENA

22:15 ZINEA
hombre sin sombra"

## 21 ASTEARTEA

19:3014IUSIKA ESKOLAKO
IKASLEEN SANTA ZEZILIAKO
KONTZERTUA
Herriko Antzokian

## 22 ASTEAZKENA

20:00 ITXAROPENAABESBATZA
Santa Zezilia Eguneko emanaldia
Udaletxeko arkupeetan

## 23 OSTEGUNA

20:00 HITZALDIA
Gaia:
Lukasen ebanjelioa ulenzeko sarrem.
.Lukasen ebanjelioaren mezua'
Hizlaria: Fernando Garcia-Viana,
Donostiako Seminarioko
irakaslea

21:30 ZINE KLUBA
"El verano de Kirujiro"

## 24 OSTIRALA

22:15 ZINEA
"Viaje de pirados"

N kluba



## "El verano de Kirujiro"

Zuzendaria: T. Kitano.
Antzezleak: B. Takeshi-Y. Sekiguch.
Hana-Bi film bikainaren n en Hazko Zine-klub emana) hainbat sari eskuratu dituen pelikula hau eskaintzen digu .Ki a'no japoniarrak. Valladolideko Zinemaldian ak isr. onenaren sarkt kuratu zuen eta Cannes-eko Zinemaldian auker a ofizialean harti uen parte. Gizon heldu iletr • baten eta 7 urte mutiko baten ar k0 harremanari buruz :10110 riOa da, eta road movie (errepicleko fihn )(to niatoan egina da 09, Rgyme naiak sustrai japoniarrekoak dira, bam mendebaldeko zinearen forma estilistikoen bitartez landuak izan dira

2000-X1-17

# agenc'a

## LERIAKETAK

Urtero moduan argazki erakusketa antolatu nahi dute Morkaiko Mendizale Elkartekoek. Hori dela eta argazki lehiaketa antolatu dute. Erakusketa ahenduaren 13tik 19ra egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Lanak aurkezteko azken epea, berriz, abenduaren 5a izango da. Lanak originala izan behar du, eta parte hartzaile bakoitzak 4 argazki aurkez ditzake gehienez (nahi duen formatoan). Sariei dagokienez, epaimahaiak 30.000 pta.ko saria banatuko du. Bestetik, ikusleek heraien botoen bidez 20.000 pta.ko sariaren irabazlea aukeratuko dute.

## HITZALDIAK

Fernando Garcia Viana, Donostiako Seminarioko Bibliako irakaslea da gaur egun, eta Bibliako gaietaz lan asko argitara eman dituena. Garcia Viana jaunak hi hitzaldi eskaini ditu jadanik Elgoibarren aurreko asteetan. Hirugarren eta azken hitzaldia datorren ostegunean, hilaren 23an, eskainiko du San Bartolome elizako hitzaldi aretoan. Gaia aurreko berdina izango da: Lukasen ebanjelioa ulertzeko sarrera. Lukasen ebanjelioaren mezua. Hitzaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da



## SANTA MILJA KONT7IRTUAK

Elgoibarko Itxaropena Abesbatzak Santa Zeziliako kontzertua eskainiko du asteazkenean, azaroaren 22an (Santa Zezilia Eguna) udaletxeko arkupeetan. Silbia Hernandezek zuzenduta, honako pieza hauek ahestuko dituzte: NulIa anicitia (lohan Duijek), Capricciata (Adriano Bachieri), A whiter shade of pale (Keith Reid/Gary Brooker), That lonesame road (James Taylor), Quirino con su tres (Emilio Grenet), Herrihera (Benito Lertxundi) eta Nerea izango zen (Javier Busto). Kontzertua arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

Bestalde, Musika Eskolako ikasleen Santa Zezilia kontzertua asteartean, hilaren 21ean, izango da Herriko Antzokian. Saioa 19:30etan hasiko da.

## ZINC KARTELDEGIA

oibar, Herriko Antzokia

"El hombre sin sombra"

Zar,atla:

I kniteka: 9:30-22:15

22:1

"El Verano de Kirujiro" (Zinc Kluba

Ne;.,z,una: 21:311

Unzaga

"Jovenes prtxligiosos"

11· I .·1)-1":flii- 5

1 11:,;¹ )-2. : I

":;ajt) sospeciaa"

i )·Iirala: 1))..+11

7,1p,11.1,): 171 · 5

11· .1th•LL: 5

1')::(1-2.2;15

ERGARA Noyedades

"La contundad"

1.2:.;{)

')- 22:P>

"11. Mon9cvy"(Zinc-1:1Lim)

_11):11i)

Cgt111:1

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## „Ei hidbre sin sombre

**Zuzettilitia: Paul Verhoeven.**
**Antzezleak: Kevin Bacon, Elisabeth Shue, Josh**

Sebastian Caine, ikustezintasuna aztertzen ari diren zientzilari talde bateko buru argia da. Laborategian frogak egiten ari dela, ikustezina hihurtzea lortuko du. Dena den, laster ohartuko cla betirako izan beharko duela ikustezina. Bere laguntzaileak saiatuko clira Cairte berriro ikuskor egiten, baina ez clute knuko. Gainera, Caine bere handinahiak bultzatuta gaiztotzen hasiko da eta bere izugarrizko botereaz baliatuz, beldurra sortuko du han eta hemen.

# erretratu zaharra

2000-XI- 17



Aste honetan ere antzerkiari heldu diogu, **Miren Vallejok** Elgoiharko antzerki taldeko argazkia ekarri baitigu. 1954. urtean Andrazarratera joan ziren, bertako sanatoriora, han zeuden gaisoen aurrean antzeztu eta beraiei poz piska bat ernateko asmoarekin.

Hattek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: **Jose Antonio Aldanondo, ezezaguna, 111[1] Tere Elkoro-Iribe, Maite Vallejo, Tomas Garzia (/), Itziar Ajuria, Karmelo Gil, Felix Lodoso, Imanol Vallejo (t), ezezaguna, Karmentxu Iriondo, Pako Juaristi (t), Miren Vallejo** eta azkeneko gizonezkoa **ezezaguna da.**



*ESKERTZA*

*1999ko azaroaren 10ean, 69 urte zituela hil zen*
*RAFAEL AREITIOAL1R'TENA OSOROren arrebak*
*ESKERTZEN du azaroaren 11n*
*urteurreneko mezara agertu izana.*



*ESKERTZA*

*2000ko Azaroaren 4an, 83 urte zituela hil zen*
*IMELDA SAN MARTIN ARANAGAren sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

BIKAIN
AHOLKULARITZA

BAZKIDE
2000ko KIDEA
(C D. ELGOi9AR)






2s900. eatelut MD120ept ~,

R"ofteutteau.!

90i
AHOLKULARITZA

FISKALA - LABORALA • KONTABLEA

Antonio Arrillaga, 4 behea
Tel. 943 74 45 57
Faxa: 943 74 04 08
20870 Elgoibar
Gipuzkoa

- Aholkularitza eta kontsulta zErbitzua
  - (KontablEa)
  - (Fiskata
  - (lan arlokoa)
  - cluridikoa)
  - EMErkatal arlokoa)
- Bideragarritasun planak
- AsEguruak
- AgEntzia bidEzko banka zErbitzua

•Saineurri gernerektue (BEZ, itelbibitezio *zertfe,* Gemtios, Mesen Antsfanee ete 5 tutifte aermee Idlomeho mueleik pebel. P.mbrnia eth Bereer eharte~ke beRatlanle. PREVE5IPIANA 015.001:1pta) ez dago berne. Lleeteltsulcessn.

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

OLASO KALEA, 23 - TEL. 943 74 20 37 - 20870 ELGOIBAR
ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



**NISSAN ALMERA BERRI, BERRI, BERRI, BERRI, BERRIA.**
**ORAIN, 5 URTEKO GARANTIAREKIN, BETI BERRI-BERRI.**

**NISSAN BERRIA. BIDEAN GOZATZEKO.**

Mendeetan zehar, filosofo eta alkimistek gaztetasun betierekoaren elixirraren bila jardun dute etengabe. Nissanek Nissan Almera berriarekin aurkitu du. Daukan segurtasun aktibo eta pasiborako paketeak bere kategoriako ibilgailurik seguruenetakota bihurtzen dute. Baina, horretaz gainera, bere kategorian bost urteko garantia eskaintzen duen ibilgailu bakarra da. Inolako kilometraje muga barik, denbora horretan lehenengo egunean bezain berri egon dadin.

Nissart Almera berriak ez du urteen pisurik sentitzen.



5 URTEKO GARANTIA
KM MUGARIK GABE

| 1.5 MOTORRA COMFORT 3 ate | 1.5 MOTORRA COMFORT 5 ate | 2.2 MOTORRA DI COMFORT 3 ate | 2.2 MOTORRA DI COMFORT 5 ate |
|---|---|---|---|
| 1.935.000pw | 2.360.00OPTA* | 2.320.000pw | 2.385.000m. |

NISSAN
COIDATUZ ETA ISOZATLI